

39/2022 EBAZPENA, URTARRILAREN 20KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO LETRADUN KORPORATIBOKO BOST LANPOSTU BETETZEKO BALORAZIO-BATZORDEKO KIDEAK IZENDATZEN DIREN.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 4ko 4/2021 Instrukzioak ezartzen du Letradun Korporatibo lanpostu guztiak aldi baterako betetzeko deialdi espezifikoa egingo dela, instrukzio horren eranskinean ezarritako irizpideen arabera. Era berean, ezartzen da, bidegabeko luzapenak saihesteko, egintza berean deitu ahal izango direla destinoak aldi baterako hornitzeko aurreikusitako sistema guztietarako, eta ebazpenean errespetatu egingo dela, alde batetik, Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakietan adierazitako lehentasun-ordena, zeinaren bidez onartzen baitira Osakidetzako Ente Publikoaren zerbitzu-erakundeetan lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez eta aldi baterako barne-sustapenaren bidez betetzeko irizpideak, bai eta lanpostuak behin betiko barne-mugikortasunaren bidez hornitzeko irizpide orokorrak ere, eta, bestetik, 2021eko uztailaren 21eko akordioa, Osakidetzako aldi baterako kontratazioko zerrendak egiteko eta kudeatzeko jarraibideak ezartzen dituena.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren 551/2021 Ebazpenaren bidez (2021eko abenduaren 10ean argitaratu zen Osakidetzaren webgunean), Zuzendaritza Nagusian destinoa izango duten Letradun Korporatiboko bost lanpostuetarako deialdia egin zen, aldi baterako barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen bidez hornitzeko.

2021eko abenduaren 21ean, Osakidetzaren web-orrian iragarki bat argitaratu zen, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian destinoa duten bost Letradun lanpostu betetzeko berariazko deialdiaren eskaintzarekin, indarrean dagoen abokatu-kategoriako aldi baterako kontratazio-zerrenda osatzen duten pertsonen zuzendua.

Urtarrilaren 12an, berriz ere argitaratu zen iragarki hori, indarrean dagoen aldi baterako kontratazio-zerrenda osatzen duten pertsonen izena emateko epea luzatuz eta, gainera, 2016-2017ko EPEan gainditu eta gainditu ez zuten zerrendetan parte hartzeko aukera emanaz.

Prozesu guztietarako deialdiak aldi berean egiten direnez, balorazio-batzorde bakarra eratu behar da deialdi horien testuinguruan. Batzorde horrek aipatutako 4/2021 Instrukzioan esleitutako eginkizun guztiak izango ditu, jasotako eskaeren balorazioari eta ondorengo aldi baterako izendapen-proposamenari dagokienez. Idazkariak hitza eta botoa izango ditu, eta Batzordearen bilkura bakoitzaren akta egingo da. Batzordeak aholkulariak izan ahalko ditu, eta aholkulari horiek ez dute ez hitzik ez botorik izango.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 6ko 8/1997 Legeko Hirugarren Arau Komuneko 28. artikuluan, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat etorri, zera



EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. - Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen, Letradun Korporatiboko bost lanpostu pertsonal finkoaren eta aldi baterakoaren bidez betetzeko deialdiko balorazio-batzordeko kideak izendatzea, Ebazpen honen I. eranskinean agertzen den moduan.

Bigarrena. - Ebazpen honek duen egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. - Ebazpen honen berri ematea batzordeko kideei eta deialdian parte hartzen duten pertsonari.

Laugarrena. - Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 20a.



 **Osakidetza**
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga
OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

I. ERANSKINA

VITORIA-GASTEIZKO OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO LETRADUN
KORPORATIBOEN LANPOSTUEN BALORAZIO-BATZORDEA

Batzordeburua: Susana López Altuna And.

Batzordekidea: Ander Santamaría García Jn.

Batzordekidea: Mikel Gotzon Casas Robledo Jn.

Idazkaria: Antonio Miguel Rodríguez Álvarez jn.